

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxe: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

NIK, M^a PILAR EIZAGIRRE MURELAGA, GIZABURUAGA (BIZKAIA)
UDALEKO JARDUNeko IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Alkate Andreak 2021eko martxoaren 18an honako DEKRETU HAU eman
duela:

ALKATZETZAREN DEKRETUA 09/2021 ZKIA.

**Gaia: Gizaburuagako udal frontoia birgaitzeko proiektuen lehiaketako
finalista-irabazlea baztertzea, eta bigarren finalistari esleitzea.**

Ikusita Alkatetzaren 2021eko martxoaren 5eko 6/2021 zenbakidun Ebazpena, Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektuen lehiaketako finalista irabazleari hiru eguneko epea ematen diona Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektua idazteko kontratua esleitzeko lehiaketaren oinarrietan exijitzen diren baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez dezan eta, zehazki, Epaimahaiko kide eta udal aholkularia den arkitektoarekin duen ahaidetasun-harremana egiaztatzen duen dokumentazioa.

Izanik ebazpen honen berri eman zaiola interesdunari, eta jakinarazi zaiola errekerimendu hori adierazitako epearen barruan eta behar bezala beteko ez balu, esleipenerako eta kontratua formalizatzeko eskatutako baldintzak ez dituela betetzen ulertuko dela eta, zigor modura, lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren –BEZ kanpo–ehuneko hiruari dagokion zenbatekoa exijituko litzaiokeela.

Izanik, aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, ikusten dela lehenengo postuan hautatutako proposamena baztertzeke arrazoiak daudela, ahaidetasun-harremana duelako udal aholkularia eta Epaimahaikidea den Arkitektoarekin. Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektua idazteko kontratua esleitzeko lehiaketaren oinarrien 11.6 klausulak zera xedatzen du: *“11.6.- Ezingo dute lehiaketan parte hartu epaimahaiko kide diren arkitektoek edo lantaldeko beste kide batzuek, edo epaimahaikideekin laugarren mailako ahaidetasun- edo odolkidetasun-harremana edo bigarren mailako kidetasun-harremana dutenek, edo haiekiko zerbitzu edo lankidetzaren profesionaleko harremana dutenek”*. Ahaidetasun-harremana dagoela egiaztatu da eta, beraz, lehiaketaren oinarriak urratzen direnez, lehenengo sariaren proposamen irabazleak exijitutako eskakizunak ez dituela betetzen jotzen da, indargabetu egiten da

Epaimahaiaren epaitza eta, 19.3 klausulari jarraiki, lizitazioko oinarrizko aurrekontuaren (BEZ kanpo) % 3ko zenbatekodun zigorra aplikatu ahal izango zaio, esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua formalizatu ezin den kasuetarako aurreikusita dagoena.

Izanik, lehiaketa eraentzen duen Oinarrien Pleguaren 14.4 klausulan xedatutakoari jarraiki, parte hartu duten eskaintzen artean lehenengoarekin ezin denean lehiaketaren esleipen hori egin eta zerbitzuak eman ezin direnean, Alkateak bigarren eskaintzarekin edo, hala badagokio, hirugarrenarekin bultza dezake zerbitzu-kontratua esleitzeko prozedura. Klausula horri jarraiki, beraz, Alkatetzaren otsailaren 10eko 3/2021 zenbakidun Dekretuaren bitartez FRONTOIEN KURIKE izenarekin aurkeztutako proposamenaren alde egindako esleipena indargabetzea eta eraginik gabe uztea dagokio, lizitazioan parte hartzea debekatzen duten arrazoietako bat betetzen duelako; beraz, prozeduratik kanpo gelditzen da proposamena, eta lehiaketa epaimahaiaren epaitzaren arabera bigarren tokian aukeratutako proposamenari esleitzea dagokio, LUZE ETA MOTZ izenarekin aurkeztu zenari.

Izanik 2021eko martxoaren 11n Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko Dekano-Lehendakariak komunikazioa helarazten diola Gizaburuagako Udalari, lehiaketaren irabazleak 11.6 oinarrian xedatzen dena urratzen duela jakinarazteko, dagozkion legezko ondoreetarako. Udalak jakinarazten du lehiaketaren finalista eta irabazleari eskatu diola egiazta dezala ez duela betetzen lehiaketa eraentzen duten Pleguen arabera ahaidetasun-harremanaren debekuagatik arau-urraketaren ondorioz lehiaketatik kanpo uzteko arrazoirik.

Izanik, 2021eko martxoaren 16an, bigarren postuan gelditu zen eta lehiaketara LUZE ETA MOTZ izenarekin aurkeztu zen finalistak berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuela esleipenaren aurrean, FRONTOIEN KURIKE izenarekin aurkeztutako proposamena baztertutzat jotzea eta proiektua idazteko lana bigarren postuan sailkatutako LUZE ETA MOTZ izeneko proposamenari esleitzea eskatuz. Errekurtsogileak eskatutakoa Udalak ofizioz egindako tramitazioaren arabera onesten denez, uste da ez dagokiola errekurtsoa tramitatzea, Ebazpen honetan aitortzen baita errekurtsoan egiten den erreklamazioa.

Kontuan izanik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean eta aplikagarria den gainerako araudian xedatutakoa,

HONAKOA EBATZI DUT:

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2

48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxe: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

LEHENENGOA.- FRONTOIEN KURIKE izenarekin aurkeztutako proposamena lizitaziotik kanpo uztea, atzera botaz eta indarrik gabe utziz Alkatetzaren otsailaren 10eko 3/2021 zenbakidun Dekretu bidez egindako Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektuen lehiaketaren esleipena, esleipenaren ondoren aurkeztutako dokumentazioa ikusita, egiaztatu baita Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektua idazteko kontratua esleitzeko proiektuen lehiaketaren oinarrien 11.6 klausulan xedatutakoa urratzeagatik, lehiaketatik kanpo uzteko arrazoa betetzen duela lehiakide horrek; aipatutako klausulak xedatzen du ezin izango dutela lehiaketan parte hartu epaimahaikideekin laugarren mailako ahaidetasun- edo odolkidetasun-harremana edo bigarren mailako kidetasun-harremana dutenek, eta lizitazioko oinarritzko aurrekontuaren % 3ko (BEZ kanpo) zenbatekoa exijituko zaiola, zigor modura.

BIGARRENA.- Gizaburuagako frontoia birgaitzeko proiektuen lehiaketa API Oficina de Arquitectura SLP enpresak sinatutako LUZE ETA MOTZ izenarekin aurkeztutako proposamenari esleitzea, eta fase honetan finalista hautatutako lehiakideei sariak ematea, 3.etik 5.erako hautapen-ordenan, Epaimahaiaren proposamenari jarraiki, hautatu guztiek dagokion dokumentazioa legezko moduan aurkeztu ondoren.

HIRUGARRENA.- Oinarritzko proiektua idazteko eta egikaritzeko zerbitzua esleitzeko prozedura negoziatua abiaraztea eta, hala badagokio, baita zuzendaritza fakultatiboa ere, API Oficina de Arquitectura SLP enpresari, lehiaketaren irabazlea den aldetik, HAMAR EGUN balioduneko epea emanaz – errekerimendua jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita–, ondorengo dokumentazioa aurkez dezan:

- a) Parte-hartzailearen edo haren ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionala.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, eratze- edo aldaketa-eskritura, dagokion erregistro zibilean behar bezala inskribatuta.
- c) Hala badagokio, sozietatea edo erakundea ordezkatzeko ahalorde-eskritura.
- d) Exijitutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioko eta tekniko edo profesionaleko eskakizunen egiaztagiriak.

- e) Zerga-betebeharrak beteta izatea egiaztatzeko ziurtagiria.
- f) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea egiaztatzeko ziurtagiria (edo, hala badagokio, dagokion Mutualitateko alta, eta ordainketaren egiaztagiria).
- g) Jarduera Ekonomikoen Zergari dagokionez, ekitaldi honetako alta edo azkeneko ordainagiria. Zerga hori ordaintzetik salbuetsita egonez gero, zerga horren matrikulan baja ez eman izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, eta salbuespen-arrazoia adierazi (VI. Eranskin gisa jasota dagoen ereduaren arabera).
- h) Hala badagokio, eskaintzan proposatutako gutxieneko langile propioekin duen lan-harremana, enpresaren TC2 agirien konpultsatutako fotokopiak aurkeztuta.
- i) Arrisku profesionalengatiko erantzukizun zibileko aseguruia izatea egiaztatzen duen agiria. Eta titulazio akademikoaren eta ziurtagiriaren fotokopia, dagokion arkitektoen elkargo ofizialak emandakoa, baldin eta ez badu aurrez aurkeztu.

LAUGARRENA.- Honako Ebazpena kontratatzailearen profilean argitaratzea, interesdunei honen berri ematea, eta jakinaraztea hilabete bateko epea dutela – jakinarazpena jasotzen dutenetik– lehendabizi, Udalaren aurrean lehenengo eta bigarren ataletan jasotzen diren baztertze- eta ebazpen-erabakien aurka aukerazko berraztertze-errekurtsoa aurkezteko, eta bi hilabeteko epea Administrazioarekiko Auzien Bilboko dagokion Epaitegiaren aurrean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko.

Gainerako atalei dagokienez, tramite-egintza hutsak direnez, ez dago horien aurrean errekurtsorik jartzeko aukerarik.

Eta honela ager dadin eta egoki diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau ematen dut, Alkate Andrearen oniritziarekin, Gizaburuagan bi mila eta hogeita bateko martxoaren hamazortzian.

Oniritzia, Alkateak,
Amaia Zabala Goikoetxea

GIZABURUAGAKO
UDALA
(Bizkaia)



GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxa: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

YO, MARIA PILAR EIZAGIRRE MURELAGA, SECRETARIA EN FUNCIONES
DEL AYUNTAMIENTO DE GIZABURUAGA,

CERTIFICO:

Que en fecha 18 de marzo de 2021 la Sra. Alcalde ha emitido el siguiente
DECRETO:

DECRETO DE ALCALDÍA N° 09/2021

Asunto: Exclusión del finalista-ganador del concurso de proyectos para la rehabilitación del frontón municipal de Gizaburuaga y adjudicación a segundo finalista.

Vista la Resolución de Alcaldía nº 6/2021, de fecha 5 de marzo de 2021, por la que se concede al finalista ganador del concurso de proyectos para la rehabilitación del frontón de Gizaburuaga, el plazo de tres días para que presente documentación acreditativa del cumplimiento de las condiciones exigidas por las bases del concurso de proyectos para la adjudicación del contrato de redacción de proyecto de rehabilitación del frontón de Gizaburuaga y concretamente acreditación de su relación de parentesco con el miembro del Jurado, arquitecto asesor municipal.

Resultando que el requerimiento se notifica al interesado, comunicándole que, si no cumplimenta adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que no cumple las condiciones requeridas para la adjudicación y formalización del contrato, procediendo a exigirle el importe del 3 por ciento del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

Resultando que a la vista de la documentación presentada se constata la concurrencia de motivo de exclusión en la propuesta que ha resultado seleccionada en primer lugar, por relación de parentesco con uno de los miembros del Jurado, concretamente con el Arquitecto asesor municipal. La cláusula 11.6 de las bases del concurso de proyectos para la adjudicación del contrato de redacción de proyecto de rehabilitación del frontón de Gizaburuaga dispone que: *"11.6.- No podrán concursar los arquitectos u otros integrantes del equipo que formaran parte del jurado o que tuvieran con los miembros del jurado relaciones de parentesco o consanguinidad dentro del cuarto grado o afinidad dentro del segundo, o tengan relación de servicio o colaboración profesional con los mismos"*. Acreditada la relación de parentesco vulnerando las bases del

concurso, se considera que la propuesta ganadora del primer premio no cumple con los requisitos exigidos, por lo que se deja sin efecto el fallo del Jurado, y de conformidad con la cláusula 19.3 se podrá aplicar la penalización del importe del 3% del presupuesto base de licitación (IVA excluido) prevista en caso de que por causas imputables al adjudicatario no se hubiese podido formalizar el contrato.

Resultando que de conformidad con lo dispuesto en la cláusula 14.4 del Pliego de bases que rige el concurso, en caso de que no sea posible llevar a cabo dicha adjudicación del concurso y prestación de servicios con la primera de las ofertas participantes, la Alcaldesa podrá impulsar el procedimiento de adjudicación del contrato de servicio con la segunda o, en su caso, tercera de las ofertas. De acuerdo con la citada cláusula, procede anular y dejar sin efecto la adjudicación efectuada mediante Decreto de Alcaldía nº 3/2021, de 10 de febrero, a la propuesta presentada bajo lema FRONTOIEN KURIKE por incurrir en motivo de prohibición para concurrir a la licitación, que queda por tanto excluida del procedimiento y adjudicar el concurso a la propuesta seleccionada en segundo lugar, de conformidad con el fallo del jurado, que se presentó bajo lema LUZE ETA MOTZ.

Resultando que en fecha 11 de marzo de 2021 el Decano-Presidente del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, remite comunicación al Ayuntamiento de Gizaburuaga poniendo en conocimiento a los efectos legales oportunos, el incumplimiento del ganador del concurso de lo dispuesto en la base 11.6. Desde el Ayuntamiento se comunica que se ha requerido al finalista y ganador del concurso que acredite que no incurre en motivo de exclusión por incumplimiento de prohibición de relación de parentesco de acuerdo con los Pliegos que rigen el concurso.

Resultando que en fecha 16 de marzo de 2021 el finalista que quedó en segundo lugar y que se presentó al concurso bajo lema LUZE ETA MOTZ interpone recurso de reposición frente a la adjudicación, instando que se tenga por excluida la propuesta presentada bajo lema FRONTOIEN KURIKE y adjudicando la redacción del proyecto a la propuesta clasificada en segundo lugar, LUZE ETA MOTZ. Como quiera que lo solicitado por la recurrente se estima a la vista de la tramitación efectuada de oficio por el Ayuntamiento se considera que no procede tramitar el recurso cuya reclamación se reconoce en la presente Resolución.

Considerando lo dispuesto en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

PRIMERO.- Excluir de la licitación la propuesta presentada bajo lema FRONTOIEN KURIKE, revocando y dejando sin efecto la adjudicación del

GIZABURUAGAKO UDALA

Eleizaldea, 2
48289 GIZABURUAGA (Bizkaia)

- Tfnoa./ Faxe: 94 684 25 86
p.e.: idazkaritza.gizaburuaga@bizkaia.org

concurso de proyectos para la rehabilitación del frontón de Gizaburuaga a la finalista – ganadora efectuada mediante Decreto de Alcaldía nº 3/2021, de 10 de febrero, al haberse acreditado a la vista de la documentación presentada tras la adjudicación que incurre en motivo de exclusión por vulneración de lo dispuesto en la cláusula 11.6 de las bases del concurso de proyectos para la adjudicación del contrato de redacción de proyecto de rehabilitación del frontón de Gizaburuaga, que dispone que no podrán concursar los arquitectos u otros integrantes del equipo que tuvieran con los miembros del jurado relaciones de parentesco o consanguinidad dentro del cuarto grado o afinidad dentro del segundo, procediendo a exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación, IVA excluido, en concepto de penalidad.

SEGUNDO.- Adjudicar el concurso de proyectos para la rehabilitación del frontón de Gizaburuaga a la propuesta presentada bajo lema LUZE ETA MOTZ suscrita por API Oficina de Arquitectura S.L.P, y entregar los premios a los concursantes seleccionados como finalistas en esta fase en orden de selección 3º a 5ª, de conformidad con la propuesta del Jurado, previa presentación en legal forma por todos los seleccionados de la documentación correspondiente.

TERCERO.- Iniciar procedimiento negociado para la adjudicación del servicio de redacción del proyecto básico y de ejecución, y en su caso, la dirección facultativa, concediendo a API Oficina de Arquitectura S.L.P., como ganadora del concurso, el plazo de DIEZ DÍAS hábiles contados a partir del día siguiente a la recepción del requerimiento para que presente la siguiente documentación:

- a) Documento Nacional de Identidad del participante o su representante.
- b) En caso de personas jurídicas, escritura de constitución o modificación, debidamente inscrita, en el registro oficial correspondiente.
- c) En su caso, escritura de apoderamiento para representar a la sociedad o entidad en cuyo nombre concurra.
- d) La acreditación de los requisitos de solvencia económica y financiera y técnica o profesional exigidas.
- e) Certificación acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias.
- f) Certificación acreditativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones con la Seguridad Social (o, en su caso, el alta en la Mutuality correspondiente, y acreditación del pago).

- g) Alta referida al ejercicio corriente o el último recibo del Impuesto de Actividades Económicas. En caso de estar exento de este impuesto presentará declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto y señalará el supuesto de exención (conforme al modelo que figura como Anexo VI).
- h) En su caso, la relación laboral que mantiene con el personal mínimo propio propuesto en la oferta, mediante aportación de fotocopias compulsadas de los documentos TC2 de la empresa.
- i) Justificante de la existencia de un Seguro de responsabilidad civil por riesgos profesionales. Y fotocopia de la titulación académica y certificado emitido por el Colegio Oficial de arquitectos al que pertenezca, si no lo hubiera presentado antes.

CUARTO.- Publicar la presente Resolución en el perfil del contratante y notificar la misma a cuantos resulten interesados, comunicándoles que frente a la exclusión y resolución del concurso de proyectos contenida en los apartados primero y segundo podrán interponer, -previo en su caso recurso potestativo de reposición ante este Ayuntamiento en el plazo de un mes desde la notificación-, recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao que corresponda.

Frente al resto de apartados no cabe la interposición de recurso alguno al tratarse de actos de mero trámite.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, con el visto bueno de la Sra. Alcalde, en Gizaburuaga a dieciocho de marzo de dos mil veintiuno.

Vº Bº, La Alcalde,
Amaia Zabala Goikoetxea

GIZABURUAGA
Amaia
(Bizkaia)

Manuel Lizagine